

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A1E04

Maila: A1

Helburua: Lagunekin aurrez aurre plana adostea: hitzordua finkatu, asmoak adierazi...

Funtzioak: Proposatutakoa onartzea/ ez onartzea. Adostasuna edo ezintasuna adieraztea.

Azken ekintza: Euskaltegi ondoko tabernan zerbait hartzeko hitzordua adostu.

Adierazpide linguistikoak:

- Ordua: zein ordutan geratuko gara? Seietan, sei eta erdietan.
- Asteko egunak: ostegunean geratuko gara, ostiralean?
- Harridura perpausak: *Bai, noski! Ezta pentsatu ere!* Adberbioak: *Ederki!*

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Bagoaz parrandara! ✖

Inkesta bidez gelako parrandazaleen sailkapena egin taula batean. Aurrena galdetu parrandazaleak diren, eta gero markatu dezatela zein egunetan egiten duten parranda eta nolakoa den parranda hori, txikia ala handia.

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Parrandarako prest? 🎧 ✖ 👤

Ulermena. Egia / Gezurra. Ariketaren soluzioak:

Amaia badoa etxetik: horregatik da parranda. (X)

Josuri ondo iruditu zaio parrandarako eguna. (✓)

Taberna batean jarri dute hitzordua. (✓)

Ordu berean joango dira guztiak tabernara. (X)

Josuk beti egin nahi parranda. (✓)

Proposamena entzun eta gero Alex logelara doa. (✓)

Adostu dezatela ariketa; horretarako komenigarria litzateke audioa berriz jartzea. Edo transkripzioa eskaintzea.

2.2 Parranda: noiz hasi badakigu, baina noiz bukatu ez !

Jarri arreta hizkuntzan

Hizkuntzan arreta: orduen inguruan landu hizkuntza: bi kontzeptu sartu: hitzorduak adosteko ordua nola esan, hitzordua nola proposatzen den, hori adierazi hasteko (orduak puntuan eta erdietan, horiek soilik, eta beti zenbaki osoa idatzita). Eta gero hitzordu hori onartzeko/baztertzeko erabil daitezkeen hitz solte edo erantzun laburrak aipatu: ados, bale, noski, konforme, nik ezin dut... Hots, erantzun hauek aurretik esandako zerbait onartzeko edo baztertzeko erabiltzen direnez, eta hitzorduak ere adostu/baztertu egiten direnez, erantzun horiek elkarrizketa-testuinguru batean erabiltzeko, eta ez solte, aprobeitza daitezke.

Orduen kasuan, nahi izatera salbuespenak aipatu. Hiruretan, lauretan, zazpitan da, baina badira salbuespenak:

Ordu batean, ordu bietan. Hots, "ordu" osagaia jarri behar da.

3- ENTZUN ONDOREN

3.1 Geratuko gara? 📖 ✎

Transkripzio-zati bat eman, Alexek proposamena egiten duenetik audioaren bigarren etenera artekoa. Ondoren taula osa dezatela.

Nor joango da afarira?	Non geratu dira?	Ze ordutan geratu dira?
Bost pisukideak	Arkupen	Zortzi eta erdietan: Josu eta Alex Bederatzietan: Amaia Oier eta June

3.2 Zer ordutan joango gara tabernara ✕ ✎

Euskaltegi ondoko tabernan zerbait hartu nahi duzue. Adostu hitzordua. Adostu ondoren, jaso hitzordua taulan eta erantzun azken galderari.

Lehenik eguna eta gero ordua.

Eguna eta ordua adosteko elkarrizketa laburra eskaini eredu edo lagungarri modura.

Gero taula batera pasa ditzatela hartutako erabakiak: nor joango den, non geratu diren eta ordua. Eta azken galderari erantzun diezaiotela.

Transkripzioa

AMAIA.— Afari ederra prestatu duzu, Josu!

JOSU.— Mila esker. Oso erraza izan da.

AMAIA.— Orduan, gauero prestatuko duzu?

JOSU.— Ezta pentsatu ere! Zuk ere zerbait egin beharko duzu, ezta?

AMAIA.— Ondo da...

JOSU.— Zer ikusi nahi duzu telebistan, Amaia?

AMAIA.— Nik? Ezer ez. A zer logalea! Laster ohera, e?

1. ETENA

ALEX.— Gabon, gazteok!

JOSU.— Gabon, Alex, afaldu duzu?

ALEX.— Bai, kalean afaldu dut, lagun batekin.

AMAIA.— Lastima! Josuk afari ederra prestatu du.

ALEX.— Benetan? Ez da ba, askotan saiatzen...

JOSU.— Bueno, bueno, bueno...

ALEX.— Aizue, ideia bat izan dut: afari bat egingo dugu, Amaiaren omenez? Orain gutxi etorri da-eta gurekin bizitzera. Afaria eta parranda!

JOSU.— Bai! Ideia ona izan duzu, Alex.

AMAIA.— Mila esker, baina ez da beharrezkoa.

JOSU.— Bai, parranda ederra izango da.

ALEX.— Eta noiz egingo dugu? Ostiralean?

JOSU.— Ederki, ni libre nago. Zortzietan, Arkupe tabernan?

AMAIA.— Nik zortzi eta erdiak arte ezin dut, padel-partida bat jokatu behar dut. Bederatzietan?

JOSU.— Bueno, gu 20:30ean geratuko gara, eta zu, ba etorri 21.00etan.

ALEX.— Eta Oier eta June?

JOSU.— Nire kontu, haiek ere gustura etorriko dira.

AMAIA.— Oso ondo, bost pisukideak batera parrandan.

JOSU.— Baina parranda handia egin behar dugu, e?

ALEX.— Josu beti dabil parrandarako gogoz!

JOSU.— Noski, bizitza osoa pasatu dugu ikasten! Bada ondo pasatzeko garaia.

AMAIA.— Orduan, denok ados, ostiralean Arkupen elkartuko gara!

2. ETENA

ALEX.— Bai, ondo da! Bueno, ni ohera noa, oso nekatuta nago eta.

AMAIA.— Bai, ni ere banoa!

Amaiak eta Josuk batera erantzungo diote.

JOSU.— Ondo lo egin!

AMAIA.— Ondo lo egin!